
Bennu asteroidearen laginak Lurrera iritsi dira

Espaziora jaurti eta zazpi urtera, OSIRIS-REx ontziak Lurraren gainetik hegan egin zuen, Bennu asteroidearen laginak Lurrean uzteko.

NASAK 2016an jaurti zuen OSIRIS-REx, eta 2018an Bennu orbitatzen hasi zen. 2020an, 250 g harri eta hauts hartu zituen asteroidearen azaletik, eta 2021eko maiatzean abiatu zen Lurrerantz. Azkenean, 2023ko irailaren 24ean askatu zuen lagina, kapsula baten barruan, eta onik lurreratu zen, Utahko Proba eta Entrenamendu Eremuan (AEB).

Handik, berreskuratze-ekipoak jaso zuen, ez kutsatzeko neurri bereziak hartuta. Laginaren azterketak bi urte iraungo du, eta nazioarteko hainbat talderen artean egingo dute. Ez dute lagin osoa erabiliko, zati bat etorkizunean ikertzeko gordeko baitute, orduan teknika garatuagoak egongo direlakoan eta informazio gehiago lortu ahal izango dutelakoan.

Izan ere, Bennu eguzki-sistemaren hastapenetan osatu zen, eta, hortaz, eguzki-sistemaren bilakae-rari buruzko datu baliotsuak eman ditzake. Horrez gain, aberatsa da karbonotan —biziaren oinarritzko elementuetako bat—, eta horrek bereziki interes-garria egiten du. ●



Bennu asteroidea, OSIRIS-REx-en ontzitik. ARG.: NASA.

Plastiko konpostagarriko poltsak ohikoak baino toxikoagoak dira

Plastiko konpostagarrien poltsetan toxikotasun handia dagoela frogatu dute Espainiako Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko (CSIC) ikertzaileek. Gainera, ikusi dute toxikotasun hori handitu egiten dela fotodegradazioarekin, hau da, izpi ultramoreek haietan eragiten dutenean.



Poltsa konpostagarriak ohikoak dira fruta- eta barazki-saltokietan. ARG.: Unsplash/CSIC.

Hiru plastiko-mota alderatu dituzte: konpostagarria, lehen erabilerako plastikoa eta plastiko birziklatuz egindakoa. Zehazki, haien toxikotasuna neurtu dute, zebra-arrainen zelula-lerroetan.

Ondorioa, hauex: poltsa biodegradagarriak egiteko ekoizleek eranstean dituzten gehigarri kimikoak bereziki toxikoak dira. Horrekin lotuta, plastiko birziklatuzko poltsak ere ohikoak baino toxikoagoak dira.

Ohartarazi dutenez, poltsa konpostagarriek konposta kutsatzen dute, eta, horrek, noski, eragin kaltegarria izan dezake ingurumenean eta bizidunetan. Hortaz, ezinbestekotzat jo dute poltsetan erabiltzen diren substantzien migrazioa eta ekotoxikotasuna sakon ikertzea eta arau-esparru egokia ezartzea, ebidentzia zientifikoan oinarritua. ●